

Urduñako Udalak, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenen barruan eta, zehazki, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan "euskararen erabilerari dagokionez toki-erakundeek eta udalerriek dituzten eskumenei" dagokienez, Urduñako udalerrian euskararen erabilera sustatzea du helburu.

Artikulu horren 2. puntuan, udalerriari euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena ematen zaie, horretarako beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatzeko eta dinamizatzeko egiten dituzten jarduerak finantzatzen lagunduta.

Ikusirik AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak eskualdeko sustatzaile nagusietako bat dela hizkuntza-normalizazioaren arloan, esperientzia eta gaitasun egiaztatuak dituena, eta euskararen erabilera sustatzeko dinamika koordinatuak eta eraginkorrak bultzatzen dituela.

Ikusirik, gainera, AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak proposatutako estrategia eta ekintzak bat datozela Urduñako ESEP 2018-2022 Euskara Sustatzeko Ekintza Planean jasotako helburuekin.

Ikusita Urduñako Udalak eta AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak euskararen erabilera modu koordinatuan bultzatuko duten estrategiak eta ekintzak elkarrekin garatzearen garrantzia azpimarratzen dutela.

Horiengatik guztiengatik, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Urduñako Udalak eta AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak hitzarmen bat sinatzea onartzea, baldintza hauekin:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Helburua

Hitzarmen honen xedea da Urduñako Udalaren eta AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen arteko lankidetzaz artikulatzea, euskararen erabileraren normalizazioa modu koordinatuan bultzatuko duten estrategiak eta ekintzak garatzeko, eta, sinergiak sortzea eskualdeko gizarte-eragile, elkarte, entitate eta erakundeen artean.

BIGARRENA.- Iraupena

Hitzarmen hau sinatzen denetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta LAU (4) urtez luzatu ahal izango da, urtebeteko luzapenen bidez, beti ere bi aldeek ados daudela adierazten badute idatziz, eta baldin eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan dagokion diruzukidura jasotzen bada.

HIRUGARRENA.- Urduñako Udalaren konpromisoak

1.- Euskara Arloko udal-zerbitzu teknikoek aktiboki parte hartuko dute urtean zehar bilduko den



AIEKE –Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen egitura zabalean.

2.- Sinergiak sortzeko eta proaktiboak izate aldera, bilera horietan udaletako teknikariek eta AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak informazio desberdina elkar trukatu dute, udalerri desberdinetan hizkuntza normalkuntzaren inguruan garatzen ari diren edota garatuko diren ekintzei buruz.

3.- Urduñako Udalak urtero diru-kopuru bat abonatu dio AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteari, hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzeko sortzen diren funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko. Urte hasieran, diru-laguntza horren zenbatekoa adostuko dute bi aldeek. Hitzarmenaren lehen urtean, 2022an, 1.205,70€koa izango da diru-laguntza.

4.- Hitzarmenaren lehen urtean, hitzarmena sinatutakoan ordainduko da diru-laguntza. Gainerako urteetarako, eta luzapenen kasuan ere, kopuru hori aurreko urteko jarduerak egin izana justifikatu ondoren ordainduko da, BOSGARREN klausulan ezarritako baldintzetan beti ere.

LAUGARRENA.- AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen konpromisoak

1. AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak konpromisoa hartzen du, jasotako diru-ekarpena diru-laguntzaren xedetarako erabiltzeko, hau da, instituzioekin batera lan egingo du, eta beraz, foro horretan elkarlanean aritzeko ikuspegi eta jarrera aktiboa izango du. Horrenbestez, Urduñako Udalarekin batera lan egingo du, Urduñan euskararen erabilera bultzatuko duten eskualde mailako ekintzak proposatuz, koordinatuz eta gauzatuz.

2. Halaber, urte hasieran, (urtarrila-otsaila) batzarra egingo du elkarlan akordioa sinatu duten instituzioetako ordezkari nagusiekin. Batzar horretara deituak izango dira Urduñako Udaleko ordezkari nagusia den alkate-lehendakaria eta euskara arloko teknikaria.

3. Batzar instituzional horretan, aurreko urtean Eskualdean garatutako jarduerak informatuko dira, eta indarreko urterako plangintza aurkeztuko da. Zehazki ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira:

- ☐ Aurreko urteko jardueren memoria eta balantze ekonomikoa, diru-sarrera eta diru-irteeren zerrenda xehea jasota.
- ☐ Indarreko urterako plangintza eta aurrekontua.
- ☐ Indarreko urtean, erakunde bakoitzaren kasuan proposatzen den ekarpen ekonomikoa.

4. Publizitatea eta zabalkundea

AIEKE- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak udal-finantzaketaren berri eman beharko du, Urduñako Udalaren logotipoa sartuta diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituen euskarri, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezko, iragarki eta gainerako baliabideetan.

Horretarako, esaldi hau erabiliko da: «Urduñako Udalak babestutako ekintza/ Actividad subvencionada por el Ayuntamiento de Orduña».

5. AIEKE- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak konpromisoa hartzen du dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzeko, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuz, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, erantzukidetasunaren eta rol-aniztasunaren edo genero-identitatearen balioak dituen irudia sustatuz.

BOSTAGARRENA.- Zuriketa



Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege Orokorrean eta Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzan ezarritakoaren arabera, AIEKE- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Urduñako Udalaren eta eskualdeko gainerako erakundeen eskutik jasotako zenbatekoen justifikazioa aurkeztu beharko du.

Urtero, martxoaren 31 baino lehen, AIEKE- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartek diru-laguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatu beharko du.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 justifikatu beharko da, eta ez Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen duen bezala.

Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- *Memoria deskribatzailea: hitzarmen honen xede den jardueraren barruan egindako jardueren zerrenda eta deskribapena.*

- *Justifikaziorako memoria ekonomikoa:*

Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Diruz lagundutako proiektuarekin lotutako gastu guztien zerrenda.

Diruz lagundutako jardueran egindako gastua egiaztatu beharko da, fakturen eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako frogagiri bidez. Benetan ordainduta daudela frogatu behar da; beraz, nolabait egiaztatu behar da ordainduta daudela (banku-laburpenak, zigiluak, etab. jasota).

- *Kartelak, argazkiak, bideoak edo diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duen beste edozein material grafiko.*

Ez dira justifikazio gisa onartuko diru-laguntza eman zitzaionaz bestelako helburuak betetzeko egindako gastuak.

Dokumentazioa aurrez aurre aurkeztu ahal izango da Kale Zaharreko 2-4 zenbakietako Herriarrei Laguntzeko Bulegoan (ordutegia: 9:00etatik 13:30era), astelehenetik ostiralera, edo Urduñako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (www.urduna.com/Tramiteak).

Halaber, justifikazioa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo nahikoa justifikatzen ez bada, Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza beteko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

SEIGARRENA.- Udalaren ahalak

Urduñako Udalak egokitzen jotzen dituen kontrol-jarduerak egin ahal izango ditu, bai eta finantza-kontrolekoak ere, justifikazio-dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Era berean, AIEKE- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea behartuta egongo da kontrol-eginkizunak gauzatzen laguntzera eta erraztera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena iraungitzea

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoren bat izateagatik, eta, besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

- Hitzarmenaren luzapena adostu ez izana indarraldia amaitu baino lehen.
- Bi aldeek hitzarmena iraungitzea adostu izana.
- AIEKE- Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkartea desegitea.
- Alderdi sinatzaileraren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak guztiz edo partzialki ez betetzea.
- Udalak aurrekontu-esleipen partzial edo osoa ez egitea hitzarmen honen ondoriozko betebeharre aurre egiteko.
- Hitzarmena deusez deklaritzen duen erabaki judizialagatik.
- Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntza itzultzea

Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan edo Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen ordenantzan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira.

Zehazki, justifikazio-betebarra ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesa itzultzeko betebarra, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera. Era berean, ez-betetze horren ondorengo bost urteetan ezin izango da inolako diru-laguntzarik jaso.

Diru-laguntza itzultzeko eskatzen duen ebazpena diru-laguntza eman zuen organoak berak emango du.

Itzulketa-espedientea bat etorriko da Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan ezarritako prozedura-arauekin, eta 15 egun balioduneko entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. eta IV. tituluetan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan xedatutakoa ere kontuan hartuko da.

Diruz lagundutako jardueraren kostuarekiko gehiegizko finantzazioa ere itzultzeko arrazoi izango da.

BEDERATZIGARRENA.- Zehapen-araubidea

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.

HAMARGARRENA.- Lege-markoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Legea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarriak



arautzen dituen Udal Ordenantza, eta Sektore Publikoko Erregimen Jurikoaren 40/2015 Legea, bai eta ezartzekoak litezkeen gainerako xedapenak ere.

Ondorioz, kontratu hau indarrean dagoen bitartean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatziko ditu.

BIGARRENA.- Erabaki hau AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteari jakinaraztea eta hitzarmena formalizatzeko zitazioa egitea.

Visto que el Ayuntamiento de Orduña, dentro de las competencias que tiene atribuidas por la legislación vigente y en concreto las referidas en el artículo 7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo referente a “*Competencias de las entidades locales y de los municipios respecto al uso del euskera*”, tiene por objeto impulsar el uso del euskera en el municipio de Orduña.

Visto que el citado artículo en su punto número 2 atribuye a los municipios, como propia, la competencia para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera mediante la colaboración en la financiación de actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades”.

Visto que AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea es uno de los principales promotores de la comarca en materia de normalización lingüística, con experiencia y capacidad contrastadas, que impulsa dinámicas coordinadas y eficaces para el fomento del uso del euskera.

Visto además que las estrategia y acciones propuestas por AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea son acordes a los objetivos recogidos en el Plan de Normalización Lingüística ESEP 2018-2022 (Plan de Acción para la Promoción del Euskera) de Orduña.

Visto que el Ayuntamiento de Orduña y AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea subrayan la importancia de colaborar conjuntamente en el desarrollo de estrategias y acciones que impulsen el uso del euskera de una manera coordinada.

Por todo lo que antecede,

RESUELVO

PRIMERO.- Aprobar la suscripción de un convenio entre el Ayuntamiento de Orduña y AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea en los siguientes términos:

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- Objeto

Es objeto del presente convenio articular la colaboración entre el Ayuntamiento de Orduña y AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak para el desarrollo de diferentes estrategias y acciones que impulsen la normalización del uso del euskera de una manera coordinada, creando para ello sinergias entre los diferentes agentes sociales, asociaciones, entidades e instituciones de la Comarca y propiciando la interacción y colaboración mutua.

SEGUNDA.- Duración

El presente convenio tendrá vigencia desde la firma del mismo hasta el 31 de diciembre de 2026, pudiendo ser prorrogado por otros CUATRO (4) AÑOS en periodos sucesivos de un año, siempre que se manifieste el acuerdo expreso de las partes y exista en el presupuesto municipal consignación presupuestaria al efecto.

TERCERA.- Compromisos del Ayuntamiento de Orduña

1.- Los servicios municipales del Área de Euskera del Ayuntamiento de Orduña tomarán parte activamente en la reunión que AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak celebrará con todos los agentes pertenecientes al mismo.

2.- Al objeto de ser proactivos en la creación de sinergias, en dichas reuniones las áreas técnicas de los Ayuntamientos intercambiarán información respectiva a las acciones que se realicen o se tenga intención de realizar en torno a la normalización lingüística en los diferentes municipios.

3.- El Ayuntamiento de Orduña abonará anualmente a AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak una subvención económica al objeto de sufragar los gastos de funcionamiento que se destinen al cumplimiento de los objetivos fijados en el presente convenio. Dicha cantidad será acordada por las dos partes a primeros de año. El primer año de convenio, 2022, la cantidad de la subvención será 1.205,70€.

4.- El primer año de vigencia del presente convenio el pago de la subvención se hará efectivo a la firma del mismo.

Para el resto de años, y también en caso de prórroga, esta cantidad será abonada una vez se justifique la realización de las actividades del año anterior, en los términos establecidos en la cláusula QUINTA.

CUARTA.- Compromisos de AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak

1.- AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak se compromete a destinar los fondos recibidos en el desarrollo de la actividad subvencionada, esto es, trabajar conjuntamente con las instituciones y concretamente con el Ayuntamiento de Orduña, proponiendo, coordinando y ejecutando acciones a nivel comarcal que redunden en el impulso del uso del euskera en Orduña.

2.- Así mismo, se compromete a celebrar a comienzos de cada año (enero-febrero), una reunión con las y los representantes de todas las instituciones firmantes del acuerdo, a la cual serán convocadas tanto alcaldía como el área técnica del Ayuntamiento.

3.- En dicha reunión institucional, informará sobre las acciones realizadas en la Comarca el año anterior y presentará una planificación para el año vigente. Concretamente se darán a conocer los siguientes datos:

- ☐ *Actividades realizadas y balance económico del año anterior.*
- ☐ *Planificación y presupuesto para el año en curso.*
- ☐ *Propuesta de aportación económica correspondiente a cada institución para el año en curso.*



4.- Publicidad y difusión

AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak *deberá hacer pública la financiación municipal, incluyendo el logotipo del Ayuntamiento de Orduña en los diferentes soportes, medios electrónicos o audiovisuales, anuncios y demás medios de difusión que generen o utilicen para la actividad subvencionada.*

A tal efecto se utilizará para ello la frase: "Urduñako Udalak babestutako ekintza/ Actividad subvencionada por el Ayuntamiento de Orduña"

5. AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak *se compromete a que en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales se emplee un uso no sexista del lenguaje evitando cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipo sexista fomentando una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, corresponsabilidad y pluralidad de roles o identidad de géneros.*

QUINTA.- Justificación

De conformidad con lo establecido en la Ley 38/03 de 17 de noviembre general de Subvenciones y la Ordenanza por la que se regulan las bases para la concesión de Subvenciones municipales del Ayuntamiento de Orduña, AIEKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteak realizará anualmente la justificación de los importes recibidos por parte del Ayuntamiento de Orduña y de las demás instituciones de la comarca.

Con anterioridad al 31 de marzo de cada año deberá acreditar el cumplimiento de la finalidad para la que se ha concedido la subvención y la aplicación de los fondos percibidos.

Se deberá justificar el 100% del presupuesto de la actividad subvencionada y no solo la cantidad concedida por el Ayuntamiento, tal y como establece la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

A tal efecto presentará:

- *Memoria descriptiva: relación y descripción de la actuaciones llevadas a cabo dentro la actividad objeto del presente convenio.*
- *Memoria Económica Justificativa:*
 - *Detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia*
 - *Relación de todo los gastos relativos al proyecto subvencionado.*
 - *Acreditación del gasto realizado en la actividad subvencionada mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa. Es necesario demostrar que están efectivamente pagadas por lo que se debe acreditar de algún modo que están pagadas (extractos bancarios, sellos, etc.)*
- *Cartelería, fotografías, vídeos... o cualquier otro material gráfico relacionado con la actividad subvencionada.*

No serán admisibles como justificación los gastos realizados para el cumplimiento de fines diferentes para los que fue concedida la subvención.

La documentación podrá presentarse presencialmente en la Oficina de Atención ciudadana sita en Kale Zaharra nº 2-4, horario de 9:00 a 13:30 horas, de lunes a viernes o a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Orduña (www.urduna.com / Trámites)

Asimismo la justificación se podrá presentar en los demás lugares legalmente previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En el supuesto de incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente se procederá conforme lo establecido en la Ley 38/03 de 17 de noviembre general de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Ordenanza por la que se regulan las bases para la concesión de Subvenciones municipales del Ayuntamiento de Orduña.

SEXTA.- Potestades del Ayuntamiento

El Ayuntamiento de Orduña podrá realizar las actuaciones de control que considere oportunas así como de control financiero a fin de comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación justificativa.

Asimismo AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak estará obligada a prestar colaboración y facilitar el ejercicio de las funciones de control en los términos previstos en el artículo 46 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

SÉPTIMA.- Extinción

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución, y entre otras, las siguientes causas:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.
- La disolución de AIEKE-Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua Elkarteak.
- El incumplimiento total o parcial de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.
- La falta parcial o total de consignación presupuestaria por parte del Ayuntamiento para hacer frente a las obligaciones derivadas del presente convenio.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad del convenio.
- Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

OCTAVA.- Reintegro de la subvención

Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases precedentes o en las previstas en la Ordenanza Reguladora de las Bases Generales para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Orduña y en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En concreto el incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente traerá como consecuencia la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, junto al interés de demora, en los términos establecidos en la legislación vigente. Así mismo conllevará la imposibilidad de acogerse a cualquier subvención en los cinco años siguientes a dicho incumplimiento.

La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención.



El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título IV de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de audiencia al interesado por el plazo de 15 días hábiles.

También se atenderá a lo dispuesto en el título III y IV del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El exceso de financiación con relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

NOVENA.- Régimen sancionador

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco.

DÉCIMA.- Marco legal

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 38/03 de 17 de noviembre general de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Ordenanza por la que se regulan las bases para la concesión de Subvenciones municipales del Ayuntamiento de Orduña y la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

En consecuencia las cuestiones litigiosas que se produzcan durante la vigencia del presente contrato serán dirimidas por la jurisdicción contencioso-administrativa.

SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo a AIKE-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarte y citarle para la formalización del convenio.

Ante mí/Nire aurrean

ALKATEA/ ALCALDESA
Itziar Biguri Ugarte

IDAZKARIA / EI SECRETARIO
Angel María Marcos Robles

Transcribir al libro exclusivamente como
garantía de su autenticidad e integridad.
Liburura transkribatuko da soil-soilik
benetakotasunaren eta osotasunaren
berme gisa.

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da bazterrean.
Documento firmado electrónicamente al margen

